

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, HERRI  
ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE  
HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA  
KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK.

HAUXE EGIAZTATZEN DU:

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita biko azaroaren zortzian** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, bestek beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 10. gaia.**

“10.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA ADINGABEEN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDEAK ETA ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAK SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEA ESKATZEKO. HITZARMENAREN GAIA DA ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ERROLDA-BASERAKO SARBIDEA.

**Lehenengoa.-** ADINGABEEN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDEAK ETA ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAK sinatutako lankidetz hitzarmenari atxikitzea eskatzea. Hitzarmenaren gaia da INEren errolda-baserako sarbidea.

Erabaki honi gehitu zaizkio bai aipatutako hitarmena bai atxikipen-eskariko dokumentua. Horren testua, jasota gera dadin, bilkura-saio honen aktari gehitu zaio 5. eranskin modura.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Bizkaiko Batzar Nagusiei bidaltzea, eta hura berresteko eskatzea.

**Hirugarrena.-** Gizarte Ekintzako foru diputatua baimentzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean atxikipen-eskaria bidaltzeko.”

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

**ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME**

Idazkaritza orokorreko unitateko burua. Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

**ZIURTATU. CERTIFICA** Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari andreak. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretaria ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, DIPUTADA  
FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE LA DIPUTACIÓN  
FORAL DE BIZKAIA.

CERTIFICA:

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **ocho de noviembre de dos mil veintidós**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 10 del Orden del Día.**

10º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA SOLICITAR LA ADHESIÓN AL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE EL INSTITUTO DE MENORES Y SERVICIOS SOCIALES Y EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, SOBRE EL ACCESO A LA BASE PADRONAL DEL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA.

**Primero.-** Solicitar la adhesión al Convenio formalizado entre el INSTITUTO DE MAYORES Y SERVICIOS SOCIALES Y EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, sobre el acceso a la base padronal del INE.:

Se anexa a este acuerdo el convenio mencionado, así como el documento de solicitud de la adhesión, cuyo texto para constancia se une al Acta de la presente sesión como Anexo nº 5.

**Segundo.-** Remitir el presente acuerdo a la Juntas Generales de Bizkaia, solicitando la ratificación del mismo

**Tercero.-** Autorizar al Diputado Foral de Acción Social a remitir la solicitud de adhesión en nombre de la Diputación Foral de Bizkaia,.

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.

HITZARMENA, ADINEKOEN ETA GIZARTE ZERBITZUEN INSTITUTUAREN ETA ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ARTEKOA, EIN-EN ERROLDA-BASERA SARTZEARI BURUZKOA

#### BILDU DIRA

Alde batetik, Luis Alberto Barriga Martín jauna, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko (IMERSO) zuzendari nagusia. Kargu horretarako izendatu zuten urtarrilaren 29ko 207/2020 Errege Dekretuaren bidez, eta hitzarmen hau sinatzeko eskumena du, urriaren 13ko 1226/2005 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera (2005eko urriaren 14ko BOE), eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

Eta, bestetik, Juan Manuel Rodríguez Poo jauna, Estatistikako Institutu Nazionaleko (EIN) presidentea, urriaren 22ko 1325/2018 Errege Dekretuaren bidez izendatua, erakunde horren ordezkari gisa, eta Estatistikako Institutu Nazionalaren Estatutua onartzen duen maiatzaren 11ko 508/2001 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan a) letrak esleitutako eskumenak baliatuz, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

Bi alderdiek, duten ordezkartzan, elkar agintzeko eta elkarren artean adosteko eskumena aitortzen diote elkarri, eta

#### ADIERAZI DUTE:

Lehena.

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 13ko 1226/2005 Errege Dekretuaren 1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (2005eko urriaren 14ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 66.1 c) eta 373 artikuluetan oinarrituta, IMERSOri eskumena ematen zaio honako gai hauetan: «a) Baliaezintasun- eta erretiro-pentsioen kudeaketa eta jarraipena, kotizaziopekoak ez diren modalitateetan», alde batera utzi gabe kudeaketa hori estatutuaren eskudun diren autonomia-erkidegoek egitea, baldin eta autonomia-erkidego horiei transferitu bazaizkie institutu horren zerbitzuak, eta «c) Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartertzeari buruzko Lege Orokorren testu bategetatik eratorritako prestazio ekonomikoen kudeaketaren jarraipena egitea, hargatik eragotzi gabe prestazio horiek Ceuta eta Melilla hirietan zuzenean kudeatzea».

Bigarrena.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 17. artikuluan 3. apartatuan ezartzen duenaren arabera, «Estatuko Administrazio Orokorrek erregelamenduz zehaztutako moduan bidaliko dizkiote udalek Estatistikako Institutu Nazionalari bakoitzak bere erroldako zehaztasunak, udalerrri guztien errolden arteko koordinazioa burutu ahal izateko».

Hirugarrena.

Erroldako datuak lagatzeko, 7/1985 Legearen 16.3 artikuluan ezarritakoa bete behar da. Horren arabera: «Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsua diren gaietarako soil-soilik». Horretarako, administrazio publiko eskatzaileak zerrenda bat emango du, eta bertan, noren helbidea edo bizilekua behar duen adieraziko du, bere eskumenak gauzatzeko. Gainera, datu hori jasotzeak garrantzitsua izan beharko du.

Gainera, udal-errolda datu pertsonalak dituen administrazio-erregistro bat da, eta, beraz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena) (aurrerantzean, DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa) xedatutakoaren mende dago.

Hala, DBEOren 6.1.e) artikuluan jasotakoaren arabera, datu pertsonalen tratamendua zilegi izango da, interesdunaren baimenik behar izan gabe, interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzeko beharrezkoa denean, eta tratamendurako oinarria lege-mailako arau batean ezarrita egon beharko da, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horri dagokionez, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.1 d) artikuluan arabera, «Estatistikako Institutu Nazionalak udal-eroldari buruzko helbide-datuak emango dizkie prestazio ekonomikoak kudeatzeaz eta itsasoko langileen itsas- eta osasun-prestakuntzaz arduratzen diren Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, eskatzen den aldian. Datu horien artean sartuko dira, hala badagokio, bizilekuaren errolda historikoarenak eta/edo kolektiboarenak, bai eta herritarrak non bizi diren edo non bizi izan diren ere, datu horiek edozein prozeduratan prestazio horiek jasotzeko eskubidearen jaiotzarekin, aldaketarekin, kontserbazioarekin edo azkentzearekin zerikusia izan dezaketenean, bai eta Gizarte Segurantzaren sistemako datu-baseetako informazioa eguneratzearekin ere».

Ildo beretik, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.2 artikuluan bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera, «Apartatu honetan eta aurrekoan aipatutako Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei informazioa emateko ez da interesdunaren aurretiazko baimenik beharko».

Era berean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.2 artikuluan hirugarren apartatuaren arabera, «Apartatu honetan eta aurrekoan xedatutakoaren arabera emandako datuak, txostenak eta aurrekariak Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileei eta zerbitzu erkideei esleitutako prestazioak kudeatzeko eginkizunen esparruan baino ez dira tratatuko, 77. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe», DBEOren 5.1.b) artikuluan jasotako «helburu-mugaren» printzipioaren ildotik. Printzipio horren arabera, datu pertsonalak «helburu zehatz, esplizitu eta legitimoei begira bilduko dira, eta, ondoren, ezin izango dira helburu horiekin bateragarriak ez diren moduan tratatu».

Kontuan izan behar da, halaber, uztailearen 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 83.3 artikuluan, abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak emandako idazkeran, ezarritakoaren arabera: «Estatistikako Institutu Nazionalaren esku dauden erroldetako datuak ezin izango dira oinarri izan erroldatze-ziurtagiriak edo -agiriak emateko». Beraz, desberdintasunik egonez gero, EINen errolda-basetik ondorioztatutako informazioaren eta interesdunek adierazitakoaren artean, IMSERSOk kasu bakoitzean egokitzen jotzen den dokumentazioa eskatuko die interesdunei edo toki-erakundeei, kudeatzeko eskumena duten prestazioak aitortzeko edo ukatzeko.

Laugarrena.

Estatistikako Institutu Nazionalak, administrazio publikoen arteko lankidetzeta eta koordinazio printzipioen arabera, baliabide egokiak gaitu nahi ditu bere errolda-basean jasota dauden helbide-datuengatik lagapena ahalik eta modurik eraginkorrenean egin dadin, legez indarrean dagoen esparruan.

Hori guztiagatik, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

3

Lehena. Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da «SECOPA» errolda-konsulten WEB zerbitzuak erabiltzea, edozein modalitatean, IMSERSO EINek kudeatzen duen errolda-base jarraitura sar dadin ahalbidetzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.1.d) artikuluan arabera, udal-eroldari buruzko helbide-datuak lortzeko, eskatzen den aldian. Datu horien artean sartuko dira, hala badagokio, bizilekuaren errolda historikoarenak eta/edo kolektiboarenak, bai eta herritarrak non bizi diren edo non bizi izan diren ere, datu horiek Gizarte Segurantzaren pentsioetarako eskubidearen jaiotzarekin, aldaketarekin, kontserbazioarekin edo azkentzearekin zerikusia dutenean, kotizaziopekoa ez den modalitatean, eta gizarte-prestazioekin eta gizarte-prestazioekin zerikusia dutenean.

IMSERSO web-zerbitzu hauetatik sartuko da: «egoitza-konsulta», «bizikidetzaren historikoa» eta «udalerri-jen

historikoa». Zerbitzu horiek, hurrenez hurren, honako hauek ematen dituzte: egungo helbidea, azken hiru urteetako bizilekuen eta bizikideen zerrenda, bizikide guztien bizileku horietan «noiztik» eta «noiz arte» bizi diren zehaztuta, eta udalerrien zerrenda, 1996tik, kontsultaren xede den pertsonaren errolda-inskripzioekin, 1996tik Espainiako lurraldeko udalerrietan bizi dela egiaztatzeko, prestazioaren eskatzailearen edo titularren helbidea egiaztatzeko eta familia-unitateak aurreko hiru urteetan izan duen bizikidetzaren egiaztatzeko.

Gainera, urtero, fitxategien berariazko gurutzaketa baten bidez, IMSERSOk eskatutako azken hiru urteetako bizilekuari eta bizikidetzari buruzko datuak emango dira, ekitaldi bakoitza amaitzean kotizazio gabeko pentsioa eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako prestazio sozial eta ekonomikoak aitortuta dituzten pertsona guztiei dagokienez.

Bigarrena. Hitzarmenari atxikitzeko sistema.

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako kotizazio gabeko pentsioen eta prestazio sozial eta ekonomikoen kudeaketan IMSERSOri esleitutako eskumena eta autonomia-erkidegoena erabat berdina direnez, interesa duten autonomia-erkidegoak hitzarmen honi atxiki ahal izango zaizkio.

Atxikitzeko prozedura hitzarmen honi erabat eta baldintzarik gabe atxikitzeko eskaeraren bidez egingo da (eranskin gisa sartu da atxikitze-egintzaren eredu), EINi zuzenduta, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunak egingo du.

4

Atxikitzea eraginkorra denean, EINek kontsultarako web-zerbitzu berberak jarriko ditu autonomia-erkidegoaren eskura, hitzarmen honetan IMSERSOrentzat ezarritako eduki eta baldintza berberekin. Hala eta guztiz ere, kontsultaren xede den pertsonak gaur egun bere egoitza ez badu autonomia-erkidegoan, gaikuntza bere eskumenen lurralde-eremura mugatuko da, bizikidetzari buruzko kontsulta historikoaren kasuan izan ezik, kontsulta hori mugarik gabe egin ahal izango baitute.

Urteko berariazko gurutzaketari dagokionez, IMSERSOrako bakarrik egingo da.

Aurrerantzean, IMSERSOri buruzko aipamenak, web-zerbitzuei dagokienez, kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren araberakoak ere izango dira.

Hirugarrena. Erroldaren datu-basea kontsultatzeko WEB-zerbitzuen ezaugarriak.

EINek, hitzarmen honetan ezarritako lankidetzaren esparruan, IMSERSOren esku jarriko ditu erroldaren datu-basea kontsultatzeko WEB-zerbitzuak, bizilekuaren banakako kontsulta, udalerrien historikoa eta bizikidetzaren historikoa kontsultatzeko.

EINek alta emango die Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu baterean onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.1.d) artikuluan xedatutakoaren babespeko prozedura edo zerbitzuei eta horietako bakoitzerako baimendutako erabiltzaileei.

Kontsultak banaka egingo dira prozedura eta zerbitzu bakoitzerako, eta beharrezkoa izango da bakoitzaren identifikazio-zenbakia eta errolda-basera sartzeko arrazoia adieraztea. Horretarako, «Espediente» eta «Helburua» eremuak erabiliko dira. Eremu horiei esker, kontrol-lanak egin ahal izango dira, eta espedienteak aurkitu ahal izango dira datuak lagatzeari buruzko audiotzetan.

Banakako kontsulta egiteko, eremu hauek erabil daitezke: NAN edo AIZ (edo horren ordezkotako zenbakia atzerritarrentzat), eskatzailearen edo prestazioaren titularren abizenak, izena eta jaiotze-data. Informazioa agertuko da, baldin eta datu-basean inskripzio bakarria badago, eta inskripzio horren identifikazio-datuak bat badatoz sartutako bilaketa-datuarekin. Inskripzio bat baino gehiago egonez gero, edo bat ere ez sartutako bilaketa-irizpideekin, mezu espeziфикoen bidez adieraziko da.

Bizikideen historikoaren web-zerbitzuaren bitartez, kontsultatutako pertsonak azken urteetan izandako bizilekuen historikoa eta harekin bizi diren edo bizi izan diren eta pertsonen buruzko informazio historikoa emango da, bizileku bakoitzean izandako bizikidetzaren hasierako eta amaierako datak zehaztuz, baita azken aldaketaren arrazoiak eta, hala badagokio, bizilekua uztea eragin zuen arrazoia ere. Udalerrien historikoaren web-zerbitzuaren bidez, kontsultatutako pertsonak 1996az geroztik udalerrietan egindako errolda-inskripzioen informazio historikoa erakutsiko da, udalerrira bakoitzean izandako bizikidetzaren hasierako eta amaierako datak zehaztuta.

Laugarrena. Estatistikako Institutu Nazionalaren erroldaren datu-base jarraitura sartzeko baldintzak.

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**

1. EINen eta IMSERSOren artean adostutako arau teknikoek arautuko dute erabiltzaileen kudeaketa eta erroldaren datu-basea kontsultatzeko web-zerbitzuetarako kontrola, bai eta IMSERSOren urteroko datu-gurutzaketaren kontrola ere. EINek IMSERSOren esku uzten du erabiltzaileen kudeaketa. IMSERSOK EINi jakinarazi beharko dio, baimena eman dezan, zein prozedura edo zerbitzutatik eta aplikaziotatik egingo duen sarbidea, bai eta zein IP helbidetatik egingo dion deia zerbitzuari, EINen aplikaziotik dagokion kontrola egin ahal izateko.

2. EINek kudeatutako erroldaren datu-basean sartu ahal izateko, eskaera bat egin behar da, eta eskaera horren oinarria izango da eskatzailearen edo prestazio bat jasotzen duenaren bizilekua edo, hala badagokio, haren bizikideak jakin behar izatea, bai eta eskaera kudeatzeko data garrantzitsuak ere. Eskaera horretan espediente-zenbaki bat egongo da, eta zenbaki hori bat etorriko da inprimaki-zenbakiarekin, halakorik egonez gero, edo espediente horri esleitutako erregistro-zenbakiarekin, datu-kontsulta hori Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera arazoitzen dela frogatzeko.

3. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 71.2 artikuluan hirugarren apartatuaren arabera, «Apartatu honetan eta aurrekoan xedatutakoaren arabera emandako datuak, txostenak eta aurrekariak Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileei eta zerbitzu erkideei esleitutako prestazioak kudeatzeko eginkizunen esparruan baino ez dira tratatuko, 77. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe», DBEOren 5.1.b) artikuluan jasotako «helburu-mugaren» printzipioaren ildotik. Printzipio horren arabera, datu pertsonalak «helburu zehatz, esplizitu eta legitimoei begira bilduko dira, eta, ondoren, ezin izango dira helburu horiekin bateragarriak ez diren moduan tratatu». Beraz, erroldako datuen berri duten IMSERSOKo unitateek aurreko apartatuan adierazitako xedeetarako bakarrik erabili ahal izango dituzte datu horiek, eta ezin izango dituzte beste helburu batzuetarako aplikatu.

4. EINek atzemandako irregulartasunak IMSERSORI jakinaraziko zaizkio, dagozkion ekintzak egin ditzan.

5. Errolda-datuak kontsultatzeko web-zerbitzuetara egindako deia ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuaren bidez egiaztatzea beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Segurtasunaren Eskema Nazionalaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen V. kapituluaren (Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa) ezarritakoaren arabera.

6. Emandako datuen kontrola eta segurtasuna honela arautuko dira: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamenduan (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua), informazioaren segurtasuneko protokoloetan (IMSERSOK onartuak) eta Gizarte Segurantzako Informazio Sistemaren Segurtasun Batzordeak erabakitako informazio-sistemarako sarbide eta erabilera segururako arauetan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena. EINen konpromisoak eta jarduketak errolda-base jarraituari egindako kontsultei dagokienez.

Hitzarmen honetan aurreikusitako lankidetzaren esparruan, EINek konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Web-zerbitzuei dagokienez:

- a) IMSERSO EINen web-zerbitzuetan integratzen laguntzea, bitartekaritza-plataformaren bidez.
- b) IMSERSOKo erroldaren datu-baseko kontsultei erantzutea ahalbidetuko duten web-zerbitzuak garatzea.
- c) Beharrezko konexio telematikoak egitea, eta igorlearen sinadura egiaztatzea.
- d) XML fitxategia bat itzultzea, zerbitzu-ziurtagiriak sinatuta, kontsultak itzulitako datuekin.
- e) Erabiltzaile bakoitzak egindako kontsulten historialaren fitxategi bat izatea («log»). Sarbideak kontrolatzeko eta horien gaineko auditoriak egiteko aukera emango du.
- f) IMSERSORI erroldaren datuetarako sarbidean nabari dituen irregulartasunak jakinaraztea, eta beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatzea. Baimendutakoa ez den beste helburu baterako sartu dela egiaztatzen bada, baja emango zaio dagokion unitateari.

Aitzitik, EINek, udal-erroldaren prestaketa kudeatzen ez duenez, ez du erantzukizunik bere gain hartzen erroldaren datu-basean jasotako helbideak errealitatearekin bat ez datozenean, eta ezin izango du lortutako datuen ziurtagiririk eman.

2.- Urteko berriarazko gurutzaketari dagokionez:

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

EINek honako informazio hau itzuliko die ekitaldi bakoitza amaitzean desgaitasuna duten pertsonentzako kotizazio gabeko pentsioa eta/edo prestazio sozialak eta ekonomikoak aitortuta dituzten pertsona guztiei, IMSERSOK emandako fitxategiaren arabera, betiere oinarrian emandako identifikatzailearekin bat datorren hautagai bakarra badago:

Erroldako inskripzio-datuak, gurutzatze-dataren aurreko hiru urteetan izan dituzten bizilekuak eta aldi horretan elkarrekin bizi izan diren pertsonak adierazita. Horietako bakoitzari dagokionez, honako hauek zehaztu beharko dira: bizilekuan izandako bizikidetzaren hasierako eta amaierako datak, azken aldaketaren arrazoia eta, hala badagokio, bizilekua uztea eragin zuen arrazoia.

EINen eta IMSERSOren arteko urteko errolda-datuaren informazioa trukatzeko sistema alderdien artean adostutakoa izango da.

Seigarrena. Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak erroldan sartzeari dagokionez garatu beharreko jarduerak.

Lortu nahi den lankidetzaren ahalbidetzeko, IMSERSOK edo, atxikipen-kasuetan, autonomia-erkidegoak honako helburu hauek dituzten ekintzak hasiko ditu:

- a) Erakunde horretako unitate eskudunek sarbideen barne-izapideak egiteko prozedura ezartzea, antolaketa-egituraren barruan.
- b) Hitzarmen hau erabat eraginkorra izan aurretik, barne-segurtasuneko arau bat izatea. Arau horrek, gutxienez, honako alderdi hauek arautuko ditu:
  1. Erabiltzaileen kudeaketaz eta sarbideen kontrolaz eta segurtasunaz arduratzen den organoa.
  2. Langile ahalduak eta sartzeko baldintzak.
  3. Erabiltzaileen kudeaketa.
  4. EINek kudeatzen duen erroldaren datu-base jarraitua kontsultatzeko web-zerbitzuaren erabiltzaileen eta sarbideen kontrola.
  5. Erabiltzaileen kudeaketa dokumentatzeko modua.
  6. Erabiltzaileen aldizkako sarbide-kontrola, horiek arrazoituta.
  7. Gorabeherak eta hartutako neurriak erregistratzea.



8. Erantzukizunen eta zehapenen araubidea.

- c) Erabiltzaileen eta sarbideen kudeaketa egitea, EINen eta IMSERSOren artean adostutako arau teknikoen arabera.
- d) Erabiltzaileei aholkularitza teknikoa eta informatikoa ematea.
- e) Eskaren datuekin XML fitxategi bat sortzea, zerbitzariaren dagokion ziurtagiriak sinatu beharko duena.
- f) IMSERSOk web-zerbitzua erabiltzeko hasiera batean alta emandako unitateen zerrenda ematea EINi, bere sisteman taula gisa sar dezan, adierazten diren arauen arabera, bai eta horren aldaketak ere, gertatzen diren heinean.
- g) EINek egiten dituen auditoretzei buruz eskatzen dion dokumentazioa ematea, IMSERSOko unitate eskudunei jakinarazten zaizkien irregulartasunen berri ematea eta EINek horien inguruan hartzen dituen neurrien berri ematea.

Zazpigarrena. Koordinaziorako eta Jarraipenerako Batzorde Misto.

Koordinaziorako eta Jarraipenerako Batzorde misto bat sortzea erabaki da, eta jatorrizko alde sinatzaile bakoitzeko hiru ordezkari osatuko dute.

IMSERSOren aldetik:

- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazioko Zuzendariorde Nagusiko bi ordezkari.
- Aurrekontu Analisisirako eta Finantza Kudeaketarako Zuzendariorde Nagusiko ordezkari bat.

EINen aldetik:

- Estatistika Koordinazioko eta Lan eta Prezio Estatistiketako Zuzendaritza Nagusiko ordezkari bat.
- Errolda Unitateko bi ordezkari.

Batzordea alde sinatzaileetako edozeinek eskatzen duenean eta, gutxienez, urtean behin bilduko da, egindako lankidetzaren emaitzak aztertzeko.

Hitzarmen honen xede den errolda-baseko datuetarako sarbideen kontrolaren arloan sortzen diren neurriei, emaitzei eta gorabeherei buruzko txostenak eskatu ahal izango ditu. Era berean, kontrol horren eraginkortasun osoa bermatzeko egokitzat jotzen diren neurriak proposatu ahal izango ditu.

Batzordeak, bere funtzionamenduan, hitzarmen honetan aurreikusitakoa beteko du, eta, osagarri gisa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalean xedatutakoa.

Azkenik, hitzarmen hau interpretatu eta betetzean sor daitezkeen desadostasunak Koordinaziorako eta Jarraipenerako Batzorde Mistoak ebatziko ditu.

Zortzigarrena. Finantzaketa.

Hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzearen eta garatzearen ondorioz, ez da alderdien artean kontraprestazio ekonomikorik sortuko, ez eta haietako inorentzako gasturik ere.

Bederatzigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau alde guztiek sinatzen duten unetik aurrera gauzatzen da, eta eraginkorra izango da Estatuko Sektore Publikoko Lankidetzaren Organoa eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa inskribatzen denetik 5 egun balioduneko epean. Halaber, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, formalizatzen denetik 10 egun balioduneko epean.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da, aldeek aho batez, berariaz eta idatziz hala erabakitzen badute. Horretarako, hitzarmenaren luzapen-eranskina sinatu beharko da, hitzarmena amaitu aurretik.

EINek web-zerbitzurako sarbidea eten edo mugatu ahal izango du, sarbideetan edo haren kontrol-araubidean anomaliak edo irregulartasunak ikusten baditu.

Hamargarrena. Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Hitzarmen hau sinatzen duen aldeetako edozeinek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak hiru hilabeteko epea emango dio betetzeko dituen betebeharrak edo konpromisoak betetzeko. Errekerimendu hori zazpigarren klausulan aurreikusitako hitzarmenaren Jarraipenerako eta Ebaluaziorako Batzordeari jakinaraziko zaio.

Baldin eta epe hori igarota betebeharra betetzen ez bada, errekerimendua egin duen alde sinatzaileak beste alde sinatzaileari jakinaraziko dio hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena desagintzat joko da.

Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik edo hitzarmen honetan edo legean aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik hitzarmena suntsiarazten bada, Jarraipenerako Batzordeak hitzarmen honetatik eratorritako eta gauzaten ari diren jarduerak amaitzeko baldintzak proposatuko ditu. Amaitzeko epe hori ezin izango da luzatu, eta alderdiek finkatuko dute Koordinaziorako eta Jarraipenerako Batzorde Mistoan, hitzarmena suntsiarazten denean.

Hamaikagarrena. Aldaketa.

Hitzarmen hau aldatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.g) artikuluan xedatutakoa beteko da.

Hitzarmen hau aldatu ahal izateko, sinatzaileek edo behar bezala baimendutako ordezkariak ados egon beharko dute, eta hitzarmen hau sinatzeko izapide berberak bete beharko dira. Atxikitako gainerako sinatzaileei Jarraipenerako Batzordeak egindako edozein aldaketa-proposamenen berri emango zaie, eta egutegiko hamar egunetan ez badute aurkakotasunik aurkeztu, ados daudela ulertuko da. Ados ez egonez gero, atxikitako sinatzailearen desadostasuna agerian jarriko da, eta Jarraipenerako Batzordeak baloratuko du akordioa lor daitekeen edo hitzarmena suntsiaraziko den sinatzaile horren aldetik.

Hamabigarrena. Suntsiarazteko arrazoiak.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikulua arabera, hitzarmena azkenduko da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoia dagoenean.

Honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- Hitzarmenaren indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia. Horretarako, IMSERSOK hitzarmenari atxikitako autonomia-erkidegoen ordezkari gisa jarduten du.
- Aldeetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, aldeetako edozeinek errekerimendua jakinarazi ahal izango dio hitzarmena bete ez duen beste aldeari, hiru hilabeteko epean bete ditzan ustez bete ez diren betebeharrak edo konpromisoak, hitzarmen honen hamargarren klausulan ezarritakoaren arabera.

- Hitzarmena baliogabea dela adierazten duen erabaki judizialagatik.
- Aurreko ez bestelako edozein arrazoi, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita badago.

Hamahirugarrena. Araubide juridiko eta eskumen aplikagarria.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta haren araubide juridikoa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko titulua VI. kapituluaren hitzarmenarako berariaz ezarritakoa da.

Bestalde, eta zazpigarren klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe, Koordinaziorako eta Jarraipenerako Batzorde Mistoak ebatzi gabeko eztabaidak sortzen badira batzordearen indarraldian, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Eta, adostasunaren froga gisa eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, aldeek hitzarmen hau elektronikoki sinatu dute, azken sinatzailearena hartuz sinadura-datatzat. –Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko zuzendari nagusia, Luis Alberto Barriga Martín. –Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakaria, eskuordetzez. (2021eko abenduaren 23ko Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 10eko BOE) Estatistika Koordinazioko eta Lan eta Prezio Estatistiketako zuzendari nagusia.- Miguel Á. de Castro Puente.



BFaren bilkura-saioaren aktaren eranskina  
Anexo al acta de la sesión de la DFB

zk./nº 5

8-11-2022

Gai zk. / Nº Asunto 10

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

12

Elektronikoki sinaturako dokumentua. KVVWH-L5X1-D84D-QU5W Egiarzapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatuta daiteke. [www.ebizkaia.eus](http://www.ebizkaia.eus) helbidean.  
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) KVVWH-L5X1-D84D-QU5W en [www.ebizkaia.eus](http://www.ebizkaia.eus).

BFaren bilkura-saioaren aktaren eranskina  
Anexo al acta de la sesión de la DFB

zk./nº 5

8-11-2022

Gai zk. / Nº Asunto 10

IDAZKARIA / LA SECRETARIA  
HITZARMENAREN ERANSKINA

xxx(e)ko autonomia-erkidegoa Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren eta Estatistikako Institutu Nazionalaren arteko hitzarmenari atxikitzeko egintza, EINen errolda-basera sartzeari buruzkoa

..... jaunak/andreak, (organo autonomiko eskudunean duen kargua aipatu)  
.....(a)k, .....(e)ko  
autonomia-erkidegokoak, kargu horretarako .....(a)k izendatu zuenak,  
.....(a)n jasotako eskumenak erabilita, honako hau

Adierazi du

.....(e)(a) n, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) eta Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak honako hitzarmen hau sinatu zutela: “Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren eta Estatistikako Institutu Nazionalaren arteko hitzarmena, EINen errolda-basera sartzeari buruzkoa”.

Atxikipen-egintza hau sinatuz, .....(e)ko autonomia-erkidegoak hitzarmen horri atxikitzeko borondatea adierazten duela, eta baldintzarik gabe onartzen dituela haren klausula guztiak, aplikagarri zaizkion heinean.

Akta hau Estatuko Sektore Publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikokoan inskribatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak atxikipenak, aldez aurretik sinatuta, eta aipatutako hitzarmenaren indarraldian iraungo du.

Hitzarmenari atxikitzeko egintza honekin bat datorrela adierazteko, modu elektronikokoan sinatzen da.

Xxxx(e)ko autonomia-erkidegoko (organo autonomiko eskudunean duen kargua aipatu). Xxxx jn./and.

Estatistikako Institutu Nazionalako (EIN) presidentearantz

BFaren bilkura-saioaren aktaren eranskina  
Anexo al acta de la sesión de la DFB

zk./nº 5

8-11-2022

Gai zk. / Nº Asunto 10

ANEXO DEL ACUERDO

CONVENIO ENTRE EL INSTITUTO DE MAYORES Y SERVICIOS SOCIALES Y EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, SOBRE EL ACCESO A LA BASE PADRONAL DEL INE

REUNIDOS

De una parte, don Luis Alberto Barriga Martín, Director General del Instituto de Mayores y Servicios Sociales (Imserso), cargo para el que fue nombrado por Real Decreto 207/2020, de 29 de enero, competente para la firma del presente convenio de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5 del Real Decreto 1226/2005, de 13 de octubre (BOE de 14 de octubre de 2005), de conformidad, asimismo, con lo señalado en el artículo 48.2 de la Ley 40/2015, de 1 octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

